



182. zenbakia

· URTARRILA 2019 ·

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan

KOORDINATZAILEAK

Lur Gil eta Itziar Perez

TIRADA

1.600 aleak

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Igoan izandako elurtea (Amaia Arano)

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira otsailaren 12 an bidalia

Olerkia



“

UMORE BELTZA

Ekhine Eizagirre

Gupida dioqu
hormez haraindiko munduari:
lan bila dabilen laguna,
lanerako bizi den bestea,
umeak artatzeko astirik ez duen emakumea.

Pozten gaitu
lanik egin behar ez izateak,
idazteko denbora izateak,
ama ez izateak,
aspertzeko astia topatzeak.

Harrotzen gara
tonaka pena pilatzen den urtegian
irauten dugulako ur azalean.
Harritzen gara
penaz ito beharrean diren hainbesteren gogoak
gora jasotzeko dugun kemenaz.

Antzerki hutsa da hau guztia:
umore beltza,
ironia iraultzailea,
sistemarekiko satira.
Kristauak nahi luketen bezala
geure buruez gupida ez gaitzen
—leziorik ez, eskerririk asko—
zuen zibilizazioaz trufatzen gara.
Ez dugu maite gupida, pena eta erruen bazka.”

”



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Argazkia: Leire Etxeberria

2019ko urtarrilaren 25ean, Jauntsarasko eskolako liburutegian Korrikaren aurkezpena egin zen eta bi korrika batzorde osatu ziren, batetik Basaburua-Imozko batzordea, eta bestetik Ultzama-Odieta-Atezko batzordea. Martxan dira beraz 21KORRIKako korrika batzordeak gure bailaretan!

Garestik Gasteiza. Apirilaren 4tik 14ra. Gure eskualdean apirilaren 8an Urritzatik sartuko da 20:19ean eta Muskitzera 00:00tan ailegatu. Guztira 36km eskualdean. (Urritza-Udabe-Beramendi-Jauntsarats-Gartzaron-Erbiti-Ilarregi-Auza-Larraintzar-Lizaso-Gelbentzu-Aroztegi-Eritzegoiti-Muskitz)

Nola parte hartu 21.KORRIKAn?

- **BATZORDEETAN** parte hartuz. Zein da Korrika Batzordeen lana? Korrikarako giroa berotzea, Korrika Kulturalerako programazioa egin eta aurrera eramatea, Korrika laguntzaileak egin (Pina eta txartela), Korrika Lagun kanpaina egitea (komertzioetan), propaganda....

- **KORRIKA LAGUNTZAILEA:** 12 euroren truke PIN-a eta deskontuetarako txartela jasotzen dute Korrika laguntzaileak.

- **KORRIKA LAGUN:** Eskualdeko taberna eta komertzioek ere Korrikan parte hartzeko aukera daukate KORRIKA LAGUN izanez. Nahi duten laguntza ekonomikoa eman ondoren, KORRIKA LAGUN txartela jasotzen dute komertzioan jartzeko.

- **KM-A EROSI:** Azkeneko Korrikan bezala km-ak 425 euro balio du. 36km egiten ditu 21.KORRIKak gure eskualdean. Kilometroak erosteko: 948604704 edo mikel-o@ae.eus



2017ko korrika Ultzaman ▲

Korrika Kulturala

Korrika Kulturalaren barruan, ekitaldi desberdinak antolatu daitezke (kirol arloan, aisialdia, musika, erakusketak, antzerkia, hitzaldiak, proiektzioak, ginkanak....) Gure bailaretan giro onean jendea elkartzeko aitzakia ezin hobea.



herri oso bat ohiturari

Lantz,

Inauteria edo ihotea heldu da Lantzko herrira, eta hiru egun handi horien aurretik, prestaketa lanak egitea dagokie bizilagunei. Ez dira lan handiak, eta bakoitzak badaki zer egin behar duen, baina mozorroak armairutik ateratzen hasiak dira, eta herria martxoaren 3tik 5erako egun handietarako prestatzen. Herrian barna etxez etxe joan gara bizilagunak zertan ari diren jakiteko.

Lehenbiziko geldialdia ostatuan egin dugu, eta inauteria ederki ezagutzen duten lagunekin elkartu gara:

• ESTEBAN ARIZTEGI LUSARRETA, SINBORNEKOA

Ahots errespetatua da Estebanena. Inauteriaren debekua ezagutu zuen Esteban haurrak, eta 1964an Caro Barojaren eskutik berreskuratu

zenean, lehenbiziko aldiz bizi izan zuen inauteria 12 urte zituelarik. Beldurrez baina zirrarez gogoratzen du lehenbiziko inauteri hura, mozorroek izua sortzen baitzuten.

Ezinbestekoa izan zen zaharren ekarpena, inauteriaren xehetasun guztiak emanez gazteei, bestela transmisioa galdu egingo baitzen. Baina beldurra ere bazuten Guardia Zibilak debekatuko ote zuen, urte

batzuk lehenago gertatu bezala.

Esteban urte luzez mozorrotu da, askotan Mielotxin bizkarrean hartuta dantzan. Baina azken urtetan beste lan bat hartu du, arotzak, Mielotxin eta gainontzekoak noiz atera koordinatzen aritzen da, etxe ezberdinetatik ateratzen baitira. Baina dantza pixkat ere egiten du urtero, ostatuko Pello Etxeberriarekin batera.

• IÑAKI ARIZTEGI CALZADO, SINBORNEKOA

Estebanen semea da Iñaki, eta tiki-ttikitatik hasi zen txatxoaz janzen eta gero beste mozorro batzuen azpian ere ibili da: arotza, ziripot, txatxo, eta azkenik zaldiko.

Zaldiko eta Ziripot pertsonaia neketsuak direla dio, fisikoki lana eskatzen dutenak, baina gustura aritzen da. Prest dago Zaldikoren mozorroa, zurezko egitura tiranteekin, zaku bat gainetik duela eta zaldi buztan bat atzean.

Inauterien onena, herria elkartzea dela dio. Egun gutxi dira urtean bizilagun guztiak elkartzen direnak, eta mahaiaren inguruan kontakizun eta istorio politak sortzen direla aipatzen digu. Besteak beste, aspaldiko garaietan txistulari batzuei egindako mehatxua: Kontratatuak zituzten txistulari batzuk, baina merkeago lortu zituzten beste bi, orduan, hasierakoei ezetz esan zieten, baina hauek baietz, etorriko zirela. Eta etorriko balira hilko zituztela esan zieten Lantzkoek; eta noski, ez ziren agertu.



Ariztegi aita-semeak ostatuko ganbaran ▲



• JOSEBA ARIZTEGI JUANENA, ETXEZARREKOA

Ziripoten erreferente handitzat dauka Juantxo herrikidea. Azken urteetan, aldiz, Joseba aritu da zakuz eta iratzez beteta, Ziripoten barnean. Pertsonaia polita dela dio, baina gogorra. Urtarrila amaieran iratzeak biltzera joan ziren aurtengo maizterrak, gero zakuak betetzeko. Baina iratze gutxi lortu dute aurten eta belarrez bete beharko dituzte hankak, nahiz eta Josebaren esanetan belarrak pisu handia daukan, eta deserosoagoa da iratzea baino.

Ziripot izatearen arriskua ere aipatzen digu, “ongi bete behar da bizkaraldea, eta lepoan babesgarria jarri, bestela atzera botatzean eroriko txarra izan genezake.” Gogoan du aurreko Ziripotek, Juanitok izandako istripua: Ostatuko eskailerak jaistean, aurretik eusten zion pertsona irristatu eta buruzaurrera paretaren kontra jo zuen Juanitok. Zakua labanaz ireki eta azkar batean eraman zuten ospitalera. Urte hartan ez zen Ziripot kalera atera.

Josebak beste teknika bat hartu du. Arrastaka jaitsi beharrean, bere kabuz jaisten ditu eskailerak, atzetik helduta dutela. Horrela arriskua gutxitu egiten du, nahiz eta zaila izan eskailerak jaistea sabaitik kaleraino.



▲ Jon Ziga Elizaintzin

Joseba Ariztegi Juanena ▼



• JON ZIGA ELIZAINTZIN, JUANGORENEKOA

Urte asko daramatza txatxoz moztortzen, ttiki-ttikitatik, eta zortzikoa eskolan ikasi zuen, Lantzen 10 urtera arte ikasten gelditzen zirenean. Jantzia “estandarra” dela dio, baina bakoitzak bere ukitua ematen dio, larruak edo galtzamotozak gehituz esaterako. Eta ttuturroa urtez urte berritu beharra dago, euriak izorratu egiten baitu.

Larunbata arratsaldean kaleak garbitzen hasten dira batzuk, eta gero gaupasan beste batzuk. Horrela hasten dira inauteriak.

Astelehen eta asteartean, txatxoz aritzeaz gain, beste lan bat ere izaten du Jonek. Ostatuko sabaian Ziripot eta gainontzekoak prestatu bitartean, bisitariak taldeka igotzen ditu prozesu hori ikus dezaten. Baina hori amaitzean ostatu barnean lehenbiziko zortzikoa egin, eta kalera.

• ISABEL BALEZTENA LARRAZA, ZURGINENKOA

Abizen asko ditu Isabelek: dendakoa, landetxekoa, aterpekoa, alkatea... herrian gogoz murgiltzen denaren seinale. Eta are gehiago murgildu zen duela 10 urte Mielotxinen jantziak egitearen ardura hartu zuenean.

Bernardinak eman zion erreleboa, eta neurrien informazioa pasata Isabel hasi zen Mielotxin txikia eta handiaren jantziak egiten, ohorea izan zela dio. Hasieran ez zen ausartu aldaketa txikiena ere egitera, baina gero hobekuntza txiki batzuk egin dizkio, belarra errazago sartzeko besteak beste.

Koloretako oihalak erabiltzen ditu soinerako, Iruñeko Ortega dendan erosiak. Urteren batean amaitu eta beste kolore bat jartzen zaio, baina duela lauzpabost urte orain jartzen dion oihalaren metro asko erosi zituzten, eta horrekin jarraitzen du.

▼ Isabel Baleztena





herri oso bat ohiturari eusten Lantz,

▼ Margarita eta Vitoria, Matxikoneko sukaldean



● MARGARITA ZIGA IRURITA ETA VICTORIA EUGI LARRAMENDI, MATXIKONEKOAK

Bi emakume hauek, ezkutuko lana egin arren, inauterietako pertsonarik garrantzitsuenetakoak dira. Ikusgarria den papera gizonek izaten dute, eta emakumeek ezkutukoa, 1964an inauteria berreskuratu zutenetik, Margaritak eta Vitoriak Mielotxinen ttuturroa egiteko ardura izan dute. Hasi zirenean txanoa puntan amaitzen zela baino ez zuten gogoratzen, eta koloreak zituela. Eta zaharragoek emandako irizpideei jarraituz, egun duen txanoa asmatu zuten, ezin ederragoa.

Egurrezko egitura kartoiz inguratu, eta paperezko zintak jarri, arte handia behar duen teknika erabiliz, paperari bere baitan buelta emanez. Astebeteko lana izaten da, urtero egin beharrekoa, erre egiten baita. Eta bilobei ere jantziak prestatzen dizkiete, beraz, lan handia izaten dute inauterietan. Baina irribarre bat ahoan, gustura egiten dutela diote, biloben ilusioa ikusita.

● OSTATUA ETA HAURRAK ERE PRESTAKETA LANETAN

Dei ugari jasotzen ari da Peio Etxeberria Agirre, Lantzko ostalaria, inauteri egunetan bazkariak pilaka izanen baititu. Eta herritarrak ere ederki zaintzen ditu gosari eta gainontzeko otorduak emanez.

▼ Pello Etxeberria Agirre, ostalaria



Ezinbestekoa den lana egiten du Peiok.

Eta haurrak ere beren egunerako prestatzen ari dira, martxoaren 3ko igandeko haurren inauterirako. Herriko etxean zortzikoa entseatzen harrapatu ditugu.

Orain eguraldia lagun izatea baino ez da falta.



▲ haurrak zortzikoa dantzatzen



Martxoaren 30ean Ultzamako gazte eguna

Bailarako gazteek haien eguna antolatu dute martxoaren azken larunbaterako. Lizasoko Kuartelenean izanen da, arratsaldean hasita.

Afalurretik hitzaldia izanen dute Altsasuko kasuaren inguruan. Bertatik etorriko dira Altsasuko gazteen kasua zertan den azaltzera. Ondoren afaria izanen da, eta aurretik, gauerdetik aurrera kontzertuak hasiko dira, Tribade eta Zea Mays.

Afarirako txartelak salgai jarri dituzte jada Larraintzarko, Iraizozko eta Jauntsarasko Apeztegiberri ostatueta. Ahalik eta lasterren erosteko abisua eman dute antolatzaileek, lekua ez baita handia eta laster amaitu daitezke afariko bonoak.

Euskal Herriko Mus Txapelketan sailkatutako lehenengo bikoteak

Ultzaman, Basaburuan eta Imotzen izan dira Euskal herriko Mus Txapelketako partidak, eta bertan ezagutu dira Iruñean lehiatzeko sailkatu diren lehenengoak. Iraizotzen, Igoan, Gartzaronen, Etxalekun eta Jauntsaratsen izan dira.

Iraizotzen 12 bikote aritu ziren. Lehenengo postuan sailkatu dira Joseba Sarasa eta Raul Casimiro; eta bigarrenean Eneko Berasain eta Patxi Etxeberria. Igoan 5 bikote izan ziren, Arkaitz Iraizotzek eta Ander Arregik lortu zuten garaipena.

Gartzarongo Toki Alai elkartearen 10 bikote aritu ziren musean. Lehenengoak Joseba satrustegi eta Javier Latasa izan ziren, eta bigarrenak Santi eta Unai Espinal. Bi bikoteak sailkatu dira hurrengo kanporaketarako.

Imotzen, aldiz, Etxalekuko ostatuan jokatuak kanporaketan 5 bikote izan ziren. Javier Goñi eta Mikel Ollo izan ziren irabazleak, eta beraz, hurrengo kanporaketarako sailkatuak.



▲ Gartzarongo kanporaketa



Mendi lasterketa berria, Ultzama trail

Azken hilabeteetan prestatzen aritu ondoren, Ultzama trail lasterketaren lehenengo edizioa errealitate bihurtu da. Apirilaren 6an izanen da Larraintzarren, zenbait herri zeharkatu eta Arañotz eta Beuntzalarrea mendiak igoko dira lasterketan.

Bi distantzia izanen dira, lasterketa laburrak 10km izanen ditu, eta luzeak 19km. Azken honek 600 metroko desnibela izanen du.

Ibilbideari dagokionez, Larraintzartik atera eta Iraizotz aldera joanen da Amati basoa zeharkatuz. Bertan hasiko da lehenbiziko igoera, Arañotzera bidean aldapan gora jarriko baitira korrikalariak. Lasterketako punturik garaienera iritsiko dira eta bertan izanen dute edan eta jateko aukera. Basoan barrena Eltsora jaitsi eta Larraintzarra bidean jarriko dira, pistatik. Bertan amaituko da lasterketa laburra, 10km eginda.

Luzeak, aldiz, beste 9km izanen ditu, eta Larraintzartik Lizasora joan eta Beuntzalarrea igoko dira, lasterketako bigarren gaina.

Mendiaren ertzetik kilometro batzuk egingo dituzte basoak estalirik, eta hortik Larraintzarra jaitsi eta heritik frontoira egingo dituzte azken metroak, bertan izanen baitute helmuketa.

Mendi lasterketek geroz eta afizio gehiago sortzen dute gure artean, eta Ultzama aldean asko dira maila polita duten korrikalariak, Pulunpen behin baino gehiagotan aipatu dugun bezala. Lasterketa asko daude Nafarroako egutegian, baina horien artean lekutxo bat egiten saiatuko da Ultzama trail lasterketa.

Data apirilaren 6a izanen da, eta goizeko 9:30ean hasiko da Larraintzarko pilotalekutik. Sariei dagokionez, normala beharko lukeen bezala, diru kopuru bera izanen dute emakumeen zein gizonen mailako irabazleek, 160€ lasterketa luzeko irabazleek eta 75€ laburrekoek.

Izen ematea herrikrosa.eus webgunean egin daiteke, eta ultzamarrek gainontzekoek baino merkeago izanen dute.

Datuak

Ultzama trail

Data: Apirilaren 6a, larunbata

Ordua: 9:30

Irteera: Larraintzarko pilotalekua

Izen ematea: Apirilaren 4ra arte (herrikrosa.eus)

Prezioa, aurrez:

Motza:

15€ ultzamarrek,
20€ kanpokoek

Luzea:

20€ ultzamarrek,
25€ kanpokoek

Distantzia/desnibela:

Motza: 10km/300m+

Luzea: 19km/600m+

Kontaktua: ultzamakirolak@gmail.com



Martxoaren 8ko greba feminista prestatzen hasi dira Basaburuan eta Imotzen

Urtarrilaren 24an egin zuten lehenengo batzar irekia Jauntsarasko eskolako liburutegian. Otsailaren 14an deitu dute bigarren batzar irekia, eta emakume* guztien parte hartzea eskatu dute: "Animatu eta parte hartu! emakume etxeoandre, soldatapeko langile, ikasle, langile prekario, langabe, autonomo, etorkin, razializatu, trans, hetero, boiler... Guztiok batera herri parekide eta askeago baterantz urratsak ematen ari gara", zabaldu duten mezua, eta emakume* guztien ahotsak bildu nahi dituzte.

Otsailaren 15ean gizonetakoekin ere batzartu nahi dute, eta bertan azalduko diete martxoaren 8an eta egunero eskatzen zaiena. Gainera, Basaburutik eta Imotztik haratago, otsailaren

erdialdean ere batzarra deituko dute gainontzeko bailaretan: Anue, Atetz, Lantz, Odieta eta Ultzama.

lazko urteko lanuzte arrakastatsuen ondoren, egun osoko greba deialdia izango da aurtengoa. Aldarrien artean, pertsonak erdigunean jartzea eta zaintzaren afera izango dira gai nagusiak. Martxoaren 8ko egitaraua osatzen hasi dira: goizeko 8etatik karrikan izango dira eskualde osoan, eta Iruñeko arratsaldeko 7etako manifestaldira joanen dira. Landa eremuko emakumeen zutabeen abiatuko dira bertara. Greba eguna baino lehenago ere hainbat ekitaldi antolatu dituzte: pankarta tailerra, poteo musikatua eta hitzaldiak, besteak beste.




M8

Berueteko Ostatua bi hilabetez itxi dute

Urtarrilaren 28tik itxita dago Berueteko Ostatua. Horrela jarraituko du bi hilabetez, zaharberritze lanengatik. Apirilaren hasierarako aurreikusten dute inaugurazioa.

Bere jabea José Luis Pardok esan digun bezala, araudira egokitu nahi dute eraikina. Komunak aniztasun funtzionaleko edo behar bereziak dituzten pertsonendako egokituko dituzte, zorua aldatuko dute, barra mugituko dute, eta jatetxea tabernatik banantzen zuen pasabidea kendu egingo dute. Horiek dira, besteak beste, egingo dituzten lanak.





Paleta goma eta frontenis txapelketak Latasan

Paleta goma eta frontenis txapelketa izango da Latasan otsailaren 8tik martxoaren 23 bitarte. Lehen maila, bigarren maila, emakumezkoen paleta goma exhibizioa eta frontenisean sailkatu dituzte partida guztiak, eta 20 bikote inguru arituko dira.

Ameztieus webgunean duzue izena emandako guztien zerrenda eta partiden egutegia.

Martxoaren 15, 16 eta 17an finalaurrekoak izanen dira, eta martxoaren 23an finala. Ondoren sari banaketa eta afaria.

Udaberriari dei egiten hasi gara

Negua iritsi berri, eta jada alde egin dezan eskatzen ari dira zonaldeko herrietan. Hori izaten da jada hasiak diren inauterien helburua, eta baita Santa Ageda egunekoa.

Lehenengo inauteriak Itsasokoak izan ziren. Urtero bezala jatekoaz eta edatekoaz lepo igaro zuten asteburua, batzuetan mahaiaren inguruan, eta besteetan etxez etxe puskak bilduta.

Igoan ere berdintsu ospatu zituzten inauteriak. Herriko ostatuan ordu anitz eman zituzten jan eta edanean, baina Itsason bezala, puska biltzen ere ibili ziren etxez etxe. Bi inauteri hauek izaten dira eskualdeko lehenengoak, eta atzetik etortzen dira beste herrietakoak.

Bestetik, Santa Ageda eguna ere ospatu zuten Basaburuan. Ihabenen eta Itsason ibili ziren aurten makila eskutan, kolpeka eta kantuka. Ihabengo eskola zaharrean entsegua egin ondoren, bi herrietan puska biltzen aritu ziren etxez etxe.

HITZALDIA LANTZEN

Gure inauteri ospetsuenak ere ate joka ditugu, baina lehenago hitzaldi bat antolatu dute ostatuan. Otsailaren 22an izanen da, ostiralarekin, arratsaldeko 8ak aldera. Herriko bidelapurren inguruan izanen da hitzaldia.



▲ Itsasoko inauteriak



▲ Igoako inauteriak

Onintza Enbeita eta Julio Soto Imozko bertso afarian

Bizkaiko bertso txapelketa abenduan irabazi zuen Onintza Enbeitaren eta Nafarroako txapelduna den Julio Sotoren esku izan da aurtengo Imozko bertso afaria.

Urtarrilaren 26an egin dute Goldarazko Etxeberri jatetxean. Bertan izan ziren herritar ugari. Bertso, errima eta doinu ederrez osatutako saioa eskaini dute Onintza Enbeita Bizkaiko txapeldunak eta Julio Soto Nafarroako txapeldunak.



▲ Imozko bertso afaria



**LARRAINTZARKO
BENTA
ZENTRO ZIBIKOA**

**luntxak
bazkariak
afariak**

...

ENKARGUZ

**deitu:
948 30 92 57**



iritzia



Angel Erro
Berria egunkarian

Ideologia

2019ko urtarilaren 10ean

Zuek ere ohartu zarete ideologia hartzen ari den ospe txarraz? Ideologia duzue? Galdetzen dut gero eta gehiagotan ideologia duena beste aldekoa delako, ez gu. Ideologia arerio politikoaren ezaugarrietako bat da, ezaugarri gaiztoa, erauzi beharrekoa, osasungarria gurea delako: ideiak eduki, ideia libreak, libreki geure gogoraino hegaldatu eta guk libreki onartuak. Egunotan Brasilen ikusi dugu, Bolsonaroen lehen hitzaldia beteta zegoen ideologiarekiko mespretxuaz.

Administrazioa desideologizatu nahi omen du. Gero Vox-ek Andaluziarako egin dituen eskakizunetan ere: hezkuntza karga ideologikoz askatu, elkarte edo GKE ideologikoei (beraiek zehaztuko dituzte zeintzuk) diru laguntzak kendu.

Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna gauzatzeko neurrien atzean ideologia bat, generokoa, dagoela esanda aurka egiten diete. Horrelakorik nahi duena ideologizatutako andre bat da, besterendua. Ohartzen zarete? Zuek ere ideologizatuta zaudete edo zuen kabuz erabakitzeko ahalmenean zaudete oraindik? Ideologizatuak edo sektarioak, beste hitz bat maiz aditzen duguna. Sekta batekoen gisa dihardutenak, alegia. Talde txiki eta fanatizatu batekoak. Hartu nahi dituzun neurriak beraienak baino askoz jende gehiagori onura ekarriarren.

Ttikiena haur eskolan hezitzailea eta zuzendaria hautatzeko prozesua, martxan

Ttikiena udalaren haur eskola martxan dago joan zen ikasturtetik, eta bertan lan egiteko lanpostuak oposizio-lehiaketan finkatuko dira. Bi lanpostu bete beharko dira: hezitzailearena eta zuzendariarena. Horretarako, hainbat proba gainditu beharko dituzte izangaiek.

Hautaketan fase desberdinak izango dituen bi azterketa egin beharko dira, hezitzailearena eta zuzendariarena, biak egun desberdinetan pertsona bakarrak bi lanpostuetan aurkezteko aukera eman ahal izateko.

Hezitzaile lanpostuaren deialdiari dagokionez, urtarilaren 19an lehen bi probak egin dira. Lehenengoa test moduko azterketa izan da eta, bigarrena, aurrekoa gainditu duenak bakarrik egin du, bi kasu praktikoz osatu beharrekoa.

Hirugarren proba psikoteknikoa izanen da, data oraindik ez dago finkatuta.

Horren ondoren, merituen balorazioarekin behin betiko emaitza argitaratuko da.

Zuzendari lanpostuaren deialdiari dagokionez, otsailaren 2an izango dira lehen bi probak.



▲ hezitzaile froga



Uholdeek hainbat eragozpen sortu dituzte eskualdean

Pasa den urtarrilaren 23ko euriteek, bereziki, hainbat eragozpen sortu zituzten. Ibaiek gainezka egin zuten eta lur jausiak ere eragin zituen.

Larraitzarren eskola hustea erabaki zuen guraso elkarteak, ikastetxeak eta udalak. Goizeko 11:00etan ikasleak autobusez txera bidaltzea erabaki zuten, ibaiak errepidea hartzeko arriskua ikusi baitzuten. Gurasoek ikastetxeak emandako informazio jarraitua eskertzen dute.

Goldaratzen lur jausi bat eragin zuen euriteak, eta ordubetez errepidea itxi zuten. Etxeberria etxeok garbitu zuten, eta eragozpen handirik ez zela sortu esan digute.

Hilabete honetan botatako elurrari euri kopuru handia gehitu behar zaio. Gainera, termometroak gora behera handiak izan ditu, elurra urtu den bitartean euria egin du etengabe eta horrek ibaien emaria asko handitzea eragin du. Hala ere, azkar itzuli dira bere honera



▲ Euriteak



CAMPING - KANPINA

IZARPE

ULTZAMAKO ATEA - PUERTA DE ULZAMA

Etxean eginiko eguneroko menua
Hamaiketakoak - Parking zabala
Pizzak, Hanburgesak.... Oilaskoen eta
paellen eskaerak egiteko aukera
EGUNERO IREKITA



eta.... Ostegunero
8ak aldera Pintxo Pote

Denetarik eta prezio hoberenean



HIRI BATEKO SUPERMERKATU TXIKI
BAT LANDA INGURUNE BATEAN

Fruta eta Barazkiak - Haragi freskoa
Produktu ekologikoak eta bertakoak

EGUNERO IREKITA
9,00etatik 20,00etara
182. PULUNPE · 2019ko urtarrila

13

Gulina-Aroztegi errepidea 12.8km-an - Tfnoa.: 848 68 14 00 - 31867 Aroztegi - ATETZKO IBARRA



Zozketa mundialeko

Urtarrilaren 13an egin genuen 2019ko zozketa mundialeko sari banaketa. Urtero bezala, Esan Erran irratiak (107.9 FM) zuzen zuzenean eskaini genuen zozketa, eta hiru orduz aritu ginen 138 sariak banatzen.

Nora Ramoneda eta Aitor Arangoa izan genituen mikrofonoetan, baina inguruan ere beste hainbat lagun izan genituen egin beharreko lanak egiten. Zerrien eta axurien irabazleak telefonoz deitu eta irratsaioan sartu genituen zuzenean, saria irabazi zutenaren berri zuzenean emanaz. Eta berriz ere haiekin harremanetan jarri gara sariaz gozatzen hasiak diren galdetzeko.

Datu bezala, esan beharra dago herriz herriko sailkapena eginda, Etxaleku izan zela herririk sarituena. Zortzi sari joan ziren bertara, tartean latxa arrazako axuri bat eta bidai bono bat. Eta gertu gertutik segika, Iraizotz izan genuen, zazpi sarirekin. Tartean axuri bat, bidai bono bat eta bi eskulan. Podiuma osatuz Eltzaburu izan genuen, bost sari irabaziz.

Baina esan bezala, lau hankatako sarien irabazleekin mintzatu gara berriz ere. Batzuk sariaz gozatzen hasiak dira, beste batzuk oraindik ez. Dena den, aurtengoan ez dugu zerri hiltzea egiten duen inor aurkitu, erosotasunera jo dute eta harategian gastatzeko 200 euroko bonoa hartu dute guztiek.

● TXARO VALLEJO, CABANILLASEKOA, ZERRIAREN IRABAZLEA

Urrutien bidali beharreko zerria genuen Txarok irabazitakoa, Cabanillasera. Sariaren berri nola jaso zuen galdetuta haxe erantzun digu: “Igande arratsalde hartan telefonoz deitu zenidaten irratiak, eta parre asko egin nuen. Oso despistatuta nengoen, euskaraz ez dakit, eta ez nintzen oroitzen Iñakik boleto bat saldu zidala. Beraz, hasieran ez nuen deus ulertzen.

Baina poz handiz jaso nuen berria, eta esan bezala, parre asko eginez.

Sorpresa ere hartu zuen Txarok: “Ez nekien zerria bizirik jaso behar nuela, eta beldur pixka bat ere sartu zitzaidan, zer egin zerriarekin. Baina azkenean harategian gastatzeko bonoa hartu dugu, horrela bailarako harategian gastua egiten dugu. Orain Iruñean bizi gara, pisu txiki batean, beraz, zerria ez zaigu sartzen. Eta gurasoek herrian aspaldi ez dutela zerri hiltzea egiten, eta beraz erosotasunera jo dugu.”



Cabanillasko Txaro Vallejo ▲

● ESTEBAN ETXEBERTZ, OLAGUEARRA, ZERRIAREN IRABAZLEA

Estebani ere irratiak zuzenean deitu genion, eta ilusioz gogoratzen du dei hura: “sekula ez zitzaidan deus tokatu, eta beraz ilusio handia egin zidan zerri bat irabazteak”. Honek ere harategian gastatzeko bonoa hartu du, erosoagoa delako txerri hiltzea egitea baino.

◀ Olagueko Esteban Etxebertz

● IÑAKI UHARTE, ETSAINARRA, ZERRIAREN IRABAZLEA

Bigarren zerri bat ere Anuen geratu zen, oraingoan Etsainen. Honela azaldu digu Iñakik zergatik hartu duen 200 euroko bonoa: “Gu ez gaude prestatuak txerri hiltzea egiteko, dirua harategian gastatuko dugu, eta ziur haragi guzti horretaz gozatuko dugula.” eta sariaz gozatzen hasi ez bazarete, on dagizuela!



● AITOR, GULINAKOA, ZERRIAREN IRABAZLEA

Aitorrek ere sorpresaz hartu zuen zerria irabaztearen berri. Gulinan bizi da, baina erosotasuna arrazoi, ez du txerri hiltzerik egingo. Oso eskertua dago zozketarengatik.

● IZASKUN OLAIZOLA, DEBATARRA, ZERRIAREN IRABAZLEA

Zerri hau ere urrutira bidali behar genuen. Nafarroatik kanpora joan diren sariak ez dira asko, gutxi batzuk Gipuzkoara, bat Ipar Euskal Herrira eta beste bat Bartzelonara. Eta Izaskun debatarak ez zuen nolanahiko saria irabazi, zerri gizen bat baizik. Dena den, herri koxkorra da Deba, eta Izaskun ez da baserri batean bizi, beraz, honek ere harategian gastatuko du dirua.

● GORKA BUENO, IRUINDARRA, ZERRIAREN IRABAZLEA

Gorkak ez zigun telefonoa hartu zuzeneko irratsaioa egiten ari ginen bitartean, baina geroago deitu zigun, gure dei bat zuela esanez eta ea zer nahi genuen. Sorpresa handia hartu zuen orduan, harriturik zerri bat irabazteagatik. “Iruñean ez dakit zerria non sartu, eta beraz harategiko bonoa hartuko dut.” Dena den, oraindik ez da hasi bonoa gastatzen.

● KONTXITA ZENOZ, TXANTREARRA, ZERRIAREN IRABAZLEA

Beste txantrear honek ere zerri bat irabazi zuen, baina gainontzeko iruindarrek bezala, zerria inon sartzeko tokirik ez: “Irratiaren bidez jaso nuen sariaren berri. Eta harategiko bonoa hartuko dut, ez baitakit eta ez baitaukat lekurik txerria hiltzeko.”

ETA BEHIN ZERRIEN IRABAZLEEKIN MINTZATUTA, AXURIEN IRABAZLEEKIN ERE MINTZATU GARA:

● ABERRI, DONEZTEBARRA, AXURIAREN IRABAZLEA

Lau hankako saria bizirik hartu duen bakarra dugu Aberri, behintzat kontaktatzerik izan dugunen artean. Doneztebera eraman du jada axuria, eta bertan dute ahuntzen artean.

Hala esan digu: “Nire aitak ahuntzak badittu, eta galdetu nion ea bizirik hartzea interesatzen zaion, aukera hori genuelako. Baietz esan zidan eta hantxe daukagu. Ez dugu axuria hilko, bizirik uzteko intentzioa dugu.”

● IRANTZU ONKO, TXANTREARRA, AXURIAREN IRABAZLEA

Irantzuk ere bizirik hartzeko asmoa zuen, baina oraindik ez du hartu. Irratitik zuzenean mintzatu ginenean, Zaraitzuko bere herrira eraman eta bertan bazkari polit bat egiteko asmoa azaldu zigun, baina horretarako axuria hartu behar lehenik.

Dei berezia izan zen Irantzurekin egin genuena. Ilusio handiarekin hartu zuen berria, eta burura etorri ahala bertsoa bota zigun zuzen zuzenean. Eskerrik asko Irantzu!

● JAIONE ELIZAGOIEN ELIZONDOARRA, AXURIAREN IRABAZLEA

Eta azkenik, Jaionerekin ere mintzatu gara. Bazkari ederra egin dute hauek jada, Latasan hartu zuten axuria, hilda, eta Elizondora eraman zuten bazkaria egiteko. Axuri erdia jan zuten eta beste erdia izozkailuan sartu zuten, beste bazkari polit bat egiteko.

ZORIONAK ERE GAINONTZEKO IRABAZLEEI, ETA SARIAZ GOZATZEN HASI EZ BAZARETE, ON DAGIZUELA!



▲ Gorka Bueno iruindarra







Artilezko Hodeiak

“Jendea harritu egiten da gure lana ikustean. Ukitu eta artileak iraganera eramaten ditu, askok esaten digute: amatziz oroitzen naiz”

Galtzerdi batzuk egin nahi zituenean sortu zitzaion Adriana Ojereri artilearekiko zaletasuna. Prozesua ezagutzeko jakin-mina ogibide bihurtu du, eta dagoeneko bost urte daramatza artilea lantzen eta produktu berriak egiteko ikasten. Bidean, Alain Flores elkartu zaio, eta biek batean Aizarotzen jarri berri dute tailerra. Tafallakoa Adriana eta Ziordikoa Alain, hiru urte daramatzate Basaburuan. Proiektuaren helburua artilearen erabilera berreskuratzea da. Izan ere, tradizio honen galeraren ondorioz artzainek lehen baino diru gutxiago irabazten dute, eta ez dakite zer egin ardiak moztu eta gero biltzen duten artilearekin. Ehun bikaina da artilea; gainera, sendoa eta aldi berean malgua, eta urte ugari irauten duena.

- Zer motatako produktuak egiten dituzue artilearekin?

Adri: Gure helburua artilearen erabilera berreskuratzea da. Hemen Nafarroan, gure inguruan, arraza ezberdinetako ardiak ditugu, eta bakoitzak artile mota ezberdina ematen du. Horrela, artile mota bakoitzak produktu ezberdinak egiteko aukera ematen digu. Adibidez, lgoako artzain batek “berrintxona” arrazako ardiak ditu, eta berari erosten diogu. Gero borro arrazako artilearekin ere egiten dugu lan, Extremadurako lagun batek duen artilearekin. Horrekin txalekoak egiten ditugu, adibidez, zuriagoa delako, eta asko egin ditugu aurtengo Eguberrietarako. Ardi latxaren artilearekin “feltro iragazgaitza” egin nahi dugu. Feltroa da artileak ematen dizun materiala. Esaten dutenez, gizakiak landu zuen lehendabiziko ehuna izan zen, hau da, historian zaharrena, naturan berean eskura dugulako. Oso sendoa da, baina aldi berean oso malgua; gainera, airea uzten pasatzen du, baina irazgaitza da. Edredoi nordikoak ere egin nahi ditugu.

- Eta hemengo artzainekin lan egiten saiatzen zarete, orduan?

Bai. Arazo larria dute artzainek artilearekin. Asko biltzen dute, eta ez dakite zer egin kopuru handi horrekin. Antzina gehien balio zuena artilea zen, horretatik bizi ziren hein handi batean, baina orain ohitura hori galdu egin da, eta ezin izaten dute saldu, orduan ez dakite zer egin artile horrekin guztiarekin. Baina ardiei ilea moztzen jarraitu behar dute. Artileak, gainera, leku asko hartzen du, ez dute non gorde, ez du su hartzen, badago lurrean bertan artilea sartzeko zuloak egiten hasi denik ere, eta denbora asko behar da desegiteko. Guk, adibidez, baratzean

ere erabiltzen dugu, nitrogeno asko ematen baitio lurrari, eta hezetasuna orekatzen du, berotegian, adibidez.

- Nola ikasi duzue hori guztia?

Poliki-poliki. Ni hasi nintzen, besterik gabe, ilusio handia neukalako galtzerdi batzukneronekigiteko, eta horretarako prozesu guztia ezagutu nahi izan nuen. Hiru eguneko ikastaro bat egin nuen Lakaben, duela bost urte, non artilearen transformazio prozesu guztia erakutsi ziguten: artilea garbitzen, tindatzen eta iruten. Geroago, artilea eta pare bat makina erosi, eta honi ekin nion. Horrez geroztik lanik handiena jurtarekin iritsi zen. Jurta egiten ikasteko Alaineekin Bretaniara joan ginen, eta bertako



▲ Alain artilea feltroan bihurtzeko lanetan. Ur beroa jaboiarekin botatzen zaio, gero birbilkatu egiten da eta ezkerreko makinean jartzen dira. Prozesu hori bukatuta lehorgailuan eta garbigailuan sartzen da.



gizon batekin ikasi genuen, eskualdeko moztailerik onena zen, han oso ezaguna. Bi aste izan ginen berarekin. Ikastaro intentsiboa izan zen, eta bera feltro iragazgaitza egitea lortu duen horietako bat da. Momentu hartan, gainera, zertatik bizi behar genuen hausnartzen hasi ginen, eta alde batera utzitako lanbidea izanda, honi ekin genion. Horretarako ikastaro ugari egin dugu.

- Ogibidea berreskuratu eta gainera artzainak pozik egongo dira, ezta?

Bai, noski. Pena da nahi adina artile hartzerik ez izatea. Normalean hiru artzaini hartzen diegu artilea, eta aurten bati bai, baina gainontzekoei ezin izan diegu erosi. Izan ere, gure ekoizpena oso xumea da, gauza txikiak egiten ditugu, eta ez dugu hainbeste artile behar. Duela bi urte 600 kilo eramangenuen garbitzera, eta orain arte iraun digu. Aurten berriro eramango dugu, agian tona bat, baina denbora asko irauten du.

- Eta non garbitzen duzue artilea?

Frantziara eramán genuen, Erdialdeko Mendigunera. Katalunian, esate baterako, museo gisa bakarrik erabiltzen den etxe bat geratzen da. Palentzian, Valentzian eta Portugalen lekuren bat omen dago, baina produktu kimikoak erabiltzen dituzte. Leonen bai aurkitu genuen artilea garbitzeko etxe bat, atsegin duguna, baina tona bat eramán behar da gutxienez, eta

ezin genuen horrelako inbertsiorik egin. Orduan, Frantzian, artilea lantzen duen beste bikote batekin elkartu ginen, eta hara eramán genuen, hemendik 1.000 kilometrora. Lekua asko gustatu zitzaigun, eta familia bereko hirugarren belaunaldia aritzen da langintza horretan. Beraz, urte asko ditu etxe horrek, eta duela gutxi arte makinak erreka uraren indarrarekin jartzen zituzten martxan. Orain elektrikoa da dagoeneko, baina makina berberak erabiltzen dituzte.

- Nola eskuratu daitezke zuen lanak?

Geroz eta azoka gehiagotara joaten gara. Hastapenean, feria txikietara joaten ginen, eta orain artisauek txartela eskuratu dugunez, azoka handiagoetara joaten ahal gara. Erdi Aroko merkatuetan ibili gara, artzain jaietan, Nafarroako Artisauek Elkartarekin. Azkenekoan artean handiena Eguberrietako azoka izan zen, eta duela gutxi Parisko azoka handi batera gonbidatu gaituzte!

Alain: orain arte egiten genuena hobetzen inbertitu dugu denbora, batez ere, gauza berriak egiten baino gehiago. Umeak ere denbora asko behar du, eta nahi baino motelago ari gara. Inguruko batzuk enkarguak egiten dizkigute, webgunea ere jarri nahi dugu. Azoketan txartelak banatzen ditugunez, bai, kanpotik ere eskatzen dizkigute

produktuak, eta bitan Madrilera bidali ditugu enkarguak, baina momentuz era oso xumean aritzen gara.

Adri: Bloga eta facebooken ikusten ahal da egiten duguna. Bestalde, Iruñeko azoka eta gero bertako denda batzuk gure produktuak saldu nahi dituztela esan ziguten.

- Eta jendeak nola erantzuten du?

Bada, gustatzen zaie egiten duguna, eta jendea harritu egiten da. Ukitzen hasten dira, eta artileak iraganera eramaten ditu, askok esaten digute “amatxiz oroitzen naiz, bera ere aritzen zen horretan”. Askotan, saltzeaz gain, iruten aritzen gara, gauzak nola egiten ditugun erakusten. Erantzun horrek indar handia ematen digu, asko motibatzen gaitu. Azoketan ez ezik, eskoletan ere izan gara umei ogibide tradizional hau erakusten.

- Xaboiak: artilezko esponjak

egiten dituzte, bertan haiek egindako xaboi naturalak sartuz.

- Zapatilak: artilezko etxeko zapatilak.

- Agendak: azala eta kontrazala artilez egindako kuadernotxoak.

- Mantak: artilezko manta goxo eta beroak. Edredoiak egiten ere hasi nahi dute.

- Plantillak: oinetakoetan paratzeko artilezko plantillak.

- Gerrikoak: gorputzeko beroa gordetzen dute, eta lunbagoa, bizkarreko mina edo hilekoak eragiten duen mina arintzen dute.

- Lanparak: Tenerifetik itzuli berri dira, bertan teknika berriak ikasi dituzte, lanparak egiteko, adibidez.



Angel, kamioi gidaria

Beren bizitzen berri eman digun jende asko pasatu da hemendik. Izan nekazari, izan pilotari, izan etxekoandre... denetatik pasatu da. Baina, uste dut txoferrik ez dudala elkarrizketatu, ez dut gogoan behintzat. Berdin da bakarren bat pasa bada ere, gaurkoa oso berezia da eta. Bai, gaur, Etxalekuko Angel Igeltz Azpirotz ekarri dugu, ia bere bizitza guzian lanbide hori izan duena. Txoferra goitik beherakoa!

Angelekin hizketan aritzea aise da, hizketarako gogo aparta baitu. Eta haurtzaroaz hasi gara. Etxalekuko **Aztarrainen** Frantxisko eta Tomasak izan zituzten ume andana handiko hirugarrena (Hamahiru izan zituzten, nahiz hiru jaio eta hilabete batzuen buruan hil) Bazuten nekazalgora, baina aita, batez ere oihanetan aritzen zen Ramon Azpirotzekin batera. Lantegiak hartzen zituzten.

• ZER DUZU GOGOAN ESKOLAKO DENBORAZ?

Ba, badakizu? Matematiketak nuen abildade puxka. Baina, zaharrenetakoa izatean, 11 urtetarako utzi behar izan nuen eskola, etxean laguntzeko, nekazalgora. Hala ere, gehiago gustatzen zitzaidan aitzakia. Eta zerra zorrozten ere erakutsi zidan aitak. Ez nintzen luze egon etxean.

• ETA NOIZ ALDATU ZENUEN LANBIDEA?

Hamalau urtetan. Bizkortuxe nengoen

eta aitak esan zidan:

-Oihanera joan behar duk. Nik baino hobeki dakik zerra zorrozten ere eta.

Eta horrela joan nintzen oihanera. Arrantxero eta, zerra zorrozten eta, horrela ibiltzen nintzen hasieran.

• ETA KAMIOIEKIN IBILTZEKO KARNETA ATERA ZENUEN SOLDADU JOAN BAINO LEHEN.

Bai, osaba Ramonek bazuen kamioi bat eta han ibiltzen nintzen endredatzen eta ikasi egin nuen.

Eta nire lehengusu Pedro txoferrak, Iturrikoak, esan zidan:

-Karneta atera behar huke!

Eta berak lagundu eta Iruñera joan nintzen ikasketak egitera. Aste bat baino askoz gehiago ez nuen egin eta kamioietarako gida-baimena atera nuen.

• ETASOLDADU. NORA JOAN ZINEN?

Iruñera, Infanteria Regimiento 7a

"Seccion Automoviles" deitzen zutenara, karneta banuelakoz. 1956. urtean izan zen.

Eta hor ibiltzen nintzen kamioiekin. GMC zahar batzuekin. Behin patata eske joan nintzen kapitainarekin batera Lantza. Han kamioia kargatu eta bide zuzenetik itzuli beharrean, Etxalekutik bueltan etorri ginen. Etxalekun amak eman zigun bazkaltzera, eta ederki.

Kapitainak txoferren bat behar zuenean, nirekin nahi izaten zuen. Nigan konfiantza handia zuen, ez zuen beste txoferrik nahi.

ETA SOLDADUTZA BUKATU ETA NORA JO ZENUEN? OIHANERA BERRIZ?

Ez, ez, txofer izateko harra banuen ordurako, ongi sartua gainera. Beuntzako **Zurgiiñeneko** Joxe Joakin oso ezaguna nuen, eta ordurako txofer zebilen Lazkaon; ari zen garraio enpresan, Azkarren, txofer bat behar zutela eta adiskide honen bidez sartu nintzen ni. Hori 1957. urtean izan zen. Enpresa horretan sei bat urte egin nuen eta gero nire kontu jarri nintzen.

• ETA LASTER NAGUSIA IZANDAKOAREN ALABAREKIN EZKONU ZINEN, BEGOÑA GARMENDIAREKIN.

Bai, 1966. urtean izan zen. Eta Iruñera etortzeko plana egin genuen. Hala ere, Beasaingo **Fundiciones Echeverria** delakoan lanez leher zabiltzala eta lana eskaini eta bi urtez bizi izan ginen bertan.

Han ginela jaio ziren gure bi lehen umeak: Juan Angel eta Mertxe. Eta hau jaio eta, laster etorri ginen Iruñera.



Bere familiarekin.
Gazteena, Igor, etortzekoa zen.

• **ETA LANEAN, ZER GARRAIATZEN ZENUEN?**

Denetarik, denetarik, baina Lazkaon bazen fabrika bat, eraikuntzarako garabiak egiten zituen, Píngon Comevasa. Eta fabrika hartarako aritu nintzen asko eta asko.

• **BAINA, GERO, URTE LUZEZ ARITU ZINEN SCHWSEPES-EN, EDARI FRESKAGARRIAK EGITEN ZITUEN FABRIKARENTZAT. NOLA SARTU ZINEN BERTAN?**

Ba, pentsa ezazu. Bartzelonan izan zen, 1970. urtean. Hango garraio komisionista batek eskatu zidan ea 15 egunetarako har nezakeen Schwsepes-en lana, beharretan zeudela eta. Iruñeko fabrikarako, alajaina, eta nik baietz, jakina! Iruñea-Bilbo joan etorria egunero. Bazkaltzerako etxera. Eta berehala gerenteak esan zidan larri zabiltzala eta egiteko beste hamabost egun.

Nik, baietz, baietz, 15 egun eta nahi bazuen 15 urte ere bai, eta horrela gelditu nintzen Schwsepes-en.

• **BESTE BI HAUR ERE HEMEN ZINETELA ETORRIZIREN.**

Bai, Ane Lore, nahiz Donostian jaio zen, eta Igor.

• **NOLA EGITEN ZEN LANA HASIERA HARTAN?**

Bazterretik kargatzen zen kamioia **Fenwick** batekin, beste edozein karga bezala. Baina karga hobeki eramateko laster asto gisako bat jarri nion kamioiari.



ALEMANIARAKO BIDAIA.

• **HALA ERE GARRAIOA BEHAR BEZALA EGIN AHAL IZATEKO, ERRAZAGO ALEGIA, BESTE ZERBAIT ASMATU ZENUEN.**

Bai, ez naiz oroitzen ongi, 1985. urtean edo izanen zen, koinatua, Legazpiko Etxaleku transportista eta, joan ginen Alemaniara; Frankfurter-en bost urtetarik garraio feria egiten zuten eta hara joan ginen. Eta nire lagunak bazuten beren egitekoa. Baina, ni, askotan, nire kontu ibiltzen nintzen hau eta beste ikusten, hainbesteko jakin-mina nuen! Eta han ikusi nituen kamioi kama berri-berri batzuk, Tautliner zeritzan sistema zutenak. Goitik eta bazterretik lona jartzeko sistema, ia automatikoa.

• **ETA ZURI GUSTATU. ZER EGIN ZENUEN?**

Bai, nik nire baitan: hau niretako gauza bikaina duk. Eta atzera eta aurrera, hor ibili nintzen nola izan nezakeen horrelako bat.

Eta piezaren bat erosi eta gainerako tresna eta tramankulu guziak gogoan hartuta etorri nintzen.

• **ETA ZURE KAMIOIARI KAMA BERRIA JARRI. NOLA IZAN ZEN HORI?**

Ba, Irurtzango Goia nuen karroza egilea eta honekin larunbatetan eta ahal nuen guzietan bildu eta hasi ginen kama berri hori muntatzen. Berak ez zuen ikusia, baina nik ongi gogoan nuenez, nik agindu eta berak egin, poliki-poliki atera genuen. Eta Tautliner sistema horri berrikuntza bat ere sartu nion.

• **ETA KOSTA SARIA?**

Bai, hori da beste bat, gauza bikaina zen, kama bat karrozatzea 800.000-1.000.000 pzt. artean izaten zen, baina Tautliner izanda 2.500.000 pezetetara goratzen zen. Hala ere izugarria zen hura, aurrerapen handia.

• **ETA ZUEN ARTEAN, GARRAIOLARIEN ARTEAN, ZER ZIOTEN?**

Jarri berritan Madrila joan eta almazenean nik deus esan ez. Baina bakarren batek ikusi kamioia eta fabrika ziren txofer guziak han atera ziren, harriturik nolako kamioia nuen.

Gero sistema hau Euskal Herrira eta Espainiara ere laster zabaltzen. Hala ere ni izan nintzen lehena.

“Nire kontu ibiltzen nintzen hau eta beste ikusten, hainbesteko jakin-mina nuen!”



Angel, kamioi gidaria

“

Kamioiak probatu eta gero, gidari guziok test batzuk egin behar izaten genituen

”

SUEDIARA BIDAIA, VOLVOAK PROBATZERA.

● ANGEL, NOIZBAIT ENTZUN IZAN DIZUT SUEDIARA ERE EGIN ZENUELA BIDAIA PROFESIONALA.

Halaxe da, 1992. urtean edo izanzen. Suediako Volvo Enpresak bere produktuak ezagutarazteko Espainian eta, kamioi gidariak konbidatu zituen. Nafarroatik Tradisnak ni igorri nahi ninduen inondik ahalean. Ni lan askorekin nenbilen, baina joateko

garaia iritsi zenean aukera ikusi nuen eta baiezkoa eman nion. Nafarroatik hirulau lagun joan ginen.

Bai, gidari multzo bat joan ginen Suediara, Goteborg-era eta astebate pasatu genuen bertan; fabrikako zirkuituan probatu genituen hiru modelo atera berriak, 520, 580, 615; denak ere bikainak.

Kamioiren batek edo batzuk bolantea eskuinean zuten eta nik hartan ere ohitura izaki ezkerrekin kanbioak egiten eta, Azkarren hasi nintzenean Leyland zituen kamioiak, ingelesak, eta hauek denak bolantea eskuinean eta kanbioa ezkerrean izaten zuten.

Kamioiak probatu eta gero, gidari guziok test batzuk egin behar izaten genituen zer on eta zer txar, zer sumatzen genien, akatsen bat antzematen bagenien... Nik ez nuen Volvorik, baina hala ere Tradisnak ni joatea nahi izan zuen.

● ETA SUEDIAN BARNA TXANGO EDERRA EGIN ZENUTEN.

Bai, jakina, baina ez pentsa, gu lanera joan ginen eta soldata ere ederra ordaindu ziguten. Diru polita ekarri genuen, eta nik kamioiak probatuz izugarri ongi pasatu nuen.

● URTETAN AURRERA, ETA ERRETIRATZE GARAIA IRITSI ZITZAIZUN.

Hiruretan hogeita bost urtetara iritsi baina jubilatzeke asmorik ez nuen, osasunez ongi, lanean oso gustura... eta aurrera segitu nuen.

● ETA NOIZ HARTU ZENUEN JUBILATZEKO ERABAKIA?

Hiruretan hogeita zazpi urtetan. Bartzelonara nindoan eta bidean beste kamioi bat pasatu nuela eta poliziak geldiarazi. Ez nuela pasatzen ahal eta nik baietz. Multa jaso eta isil. Hor esanen nuen, ni horrela ibili!? Kamioia ibiltzeko prest nintzen, baina horrelako gauzetarako ez, eta jubilatzea erabaki nuen.

● ANGEL, ORAINDIK ERE, ORAINDIK ERE, ZUK HARTUKO ZENUKE KAMIOIA!

Pentsatzen al duzu baietz!!! Bista laburtua ez banu bai! Hagitz gustura gainera!

Bai, bai, eta egia dio Angelek; nekez ezagutuko dugu txofertza hainbeste maitatu duen gizakirik!



Txurdan

Hiztegia

Garraio: transporte.

Garabia: grua

Lanez leher: lanean ezin burutuz.

Inondik ahalean: bai edo bai.

Txangoa: paseoa.





Azkeneko bost urteetan lehenengo aldiz eman dute izena neskek Ultzamako pilota entrenamenduetan. Hiru hilabete dira 12 urte laster beteko dituzten Mirari Iturralde eta Garoa Hernández horretan hasi zirela. Haiekin batean, 10 urteko Zelai Sarratea, Saioa Arangoa eta Kattalin Peñalver aritzen dira. Hiruhileko bat ez da asko, ez, baina finalaurrekoetara eta final laurdenetara iritsi ziren Gabonetan Labriten izandako neska txapelketan, eta federaziokoak aho zabalik utzi zituzten.

Gehienei beren anaiak pilotan jokatzen ikusita sartu zitzairen horretarako grina. “Patinajea aritzen nintzen, baina aspertu nintzen, eta anaia txikiarekin pilotan jolasten hasi nintzen. Gustatu zitzaidan, eta eskolan dugun frontoian jarraitu nuen. Gero, bostak apuntatu ginen pilota klaseetara”, azaltzen digu Mirarik. Takoak jartzen dituzten bitartean hitz egin dugu beraiekin, eta pilotan oso ongi pasatzen dutela nabaritzen ahal da, denek argi baitute hurrengo urtean jarraituko dutela.

Eta geroago, profesionaletan? Mirari: “Ez dakit iritsiko garen, berandu hasi garela esaten baitigute. Txikiagoa zarenean hasten bazara, gure adinarekin dagoeneko takoekin eta oso ongi jokatzen ahal duzu”. Ikusiko da, baina momentuz ederki hasi dira. Gabonetan Labriten jokatu zuten txapelketan emaitza paregabeak izan zituzten, kontuan hartuta hiru hilabete besterik ez zeramatzatela jokatzen. Aitor Paternain entrenatzailea oso pozik agertzen da: “Bi iritsi ziren finalaurrekoetara, besteak final laurdenetara. Federazioak neskak zoriontzeko idatzi zidan, baten batek ez baitzuen sinisten hiru hilabete bakarrik daramatzatela”. Frontoiak txundituta utzi zuen Garoa: “Neska asko ginen. Jende asko joan zen ikustera, eta harrotasun puntu bat sentitu genuen”.

Gabonetatik bueltan takoak jartzen ikasi dute, eta gutxinaka-gutxinaka pilota mistoa probatzen hasi dira.

“Orain saltorik krudelena egin dute, pilota goxotik mistora. Beldur nintzen hasieran, baina aurrera egin dugu, ez dira kexatzen minagatik; beraz, oso ongi”, ‘Pater’ entrenatzailea harro da neskez. “Pilota kontrolatzea ez da erreza teknika aldetik. Lehenengo egunean Kattalinekin hatz batean min hartu eta ferula jarri behar izan genion, lehenengo egunean! Baina jarraitzen dute, eta beraiek ere ikusten dute hobetzen ari direla; beraz, pozik etortzen dira”.


Oraindik ere horrelakoak esaten dizkiete mutilek, Mirari: “Neska baten kontra jokatu behar dugu; aise irabaziko diogu”. Edo beraiek irabazten dietenean, Zelaik, Saioak eta Kattalinekin: “Neska batek irabazi digu...”. Ez die, ordea, batere minik egiten, “paso” egiten dutela diote.



Takoak jantzen ikasi berri dute. ▲



▲ Takoak jantzi eta gero, ezkerretik eskuinera: Kattalin Peñalver, Saioa Arangoa, Zelai Sarratea, Mirari Iturralde eta Garoa Hernández.



“Ezinbesteko zaigu gaur garena b

Bi artzain familiatik sortu zen Arruazun Aritz Ganboa de Miguel. Aitaren familia Arruazukoa bertakoa (Sakana), eta amarena Izabakoa (Erronkari). Izabako birraitona, Doroteo de Miguel eta Arruazuko osaba, Joxe Mari Ganboa artzain izan ziren, eta ofizioaz gain, hizkuntza ere komunean zuten, Doroteo izan baitzen erronkarierazko azken hiztunetako bat.

Jada grabatzen hasi diren ‘Bideak’ dokumentalean bi herri horiek lasterka elkartuko ditu Aritzek; artzaintza, zein lurrarekin, gure ondarearekin, harremana duten ofizio eta bizimoduak balioan jarri nahi ditu. Horretarako ‘Muxu estudio’ko Xabier Unanua irurtzundarra izanen du zuzendari.

ARTZAINZAREN BALIO SOZIALA JARRI NAHI DUZU MAHAI GAINEAN, GAZTA ETA GOILARA, BESTEAK BESTE METAFORA ERABILIZ.

Izabako aitonak ezpelezko goilara bat egin zion Arruazuko osabari, artzain izateak birraitonarekin lotzen baitzuen, eta harreman estua sortu zuten. Behin osaba hil zenean, niri etorri zitzaidan, ardiekin jarri berri nengoenean.

Metafora polita iruditu zitzaidan goilara horrek daukana, nire istorioaz gain, atzean balio eta aberastasun handia baitauka pertsonatik haratago, herri gisa. Ni artzaina naiz, hori da nire bizimodua, eta nire beste afizioarekin uztarturik, mendi lasterketak, iruditu zitzaidan istorio polit bat kontatu nezakeela nire buruari erronka bat jarritz.

• ZEIN IZANGO DA ERRONKA HORI?

Arruazun gazta bat egin eta motxilan sartuta, mendia korrika zeharkatuko dut Izabaraino iritsiz. Bertan, laster jubilatuko den Marengok Belagoako Marengoren bordan Erronkari izendapenezko gazta egiten du. Baina neska gazte batek hartuko dio erreleboa aurrerantzean, eta hori da

izango garenaren adierazlea. Berak egindako gaztarekin trukatuko dut nirea, Idiazabal izendapena duena.

Finean, goilaran islatzen zen lotura hori, gaztarekin ere egingo dugu. Hau da, bertako ardi arrazarekin ekoiztutako bi gazta ezberdin, baina gizarte, kultura, paisaia eta herri berdinarenean errealitatea islatzen duena.

• ETA IBILBIDEA KORRIKA EGIN BITARTEAN, GURE IBARRETAO ISTORIOAK BATUKO ZAIZKIO HORRI.

Gaugarenaatzoizanzireneieskergara. Herri honek daukan izaera, kultura,

hizkuntza, kosmobisioa... trikuharrien azpian dauden hezurretatik datoz. Gure arbasoek daukagun guztia eman ziguten, haien egoerak sortzen zieten zailtasunei aurre eginez. Eta zer ziren? Artzainak. Haiengatik eta haiek utzitako guztiagatik ez balitz ni ez nintzateke artzaina izango, ez nituzke erabilgarri ditudan larreak izango, ezta erabiltzen dudana hizkuntza hau.

Eta ezinbesteko zaigu gaur garena balioan jartzea. Gaur ere artzainak gara, euskaldunak, gobernantza eredu interesgarriak ditugu -komunalak, ordenantzak...-. Baina zertarako gara artzain? Elikadura sortzeko. Ez bada



Aritz Ganboa de Miguel, ▲

izan nahi duguna erabakitzekeo” balioan jartzea

guk sortutako elikadura kontsumitzen, ez gara artzain izango, eta gizartea da kontsumitu behar duena.

●BERAZ, EKOIZLE ETA KONTSUMI-TZAILEEN ARTEKO LOTURA HORRETAZ ERE ARI ZARA EZTA?

Egun, gizarteak naturarekiko konexioa bilatzen du, korrika eginez, zein pasoa, zein bizikletan, zein kobazulo bat bisitatuz, zein landetxe batean egonez.

Naturarekin bai, baina horren atzean ondare aberats bat dago. Hala ere, turismoa ondare hori balioan jartzeko erabiltzen da, ala suntsitzeko? Hau da, landa eremua existitzen da bizirik baldin badago, eta ez klinex bat bezala erabiltzeko. Landa eremua soilik korrika egiteko edo asteburu on bat pasatzeko erabiltzen badugu, desagertu egingo da eta klinexik gabe bukatuko dugu.

●ETA ZER BEHAR DU LANDA EREMUAK?

Landa eremu bizi bat behar dugu, ekosistema humanizatu aberats batekin. Hau da, landa eremua kudeatuko duen jendea, eta beraz, aipaturiko kudeatze sistemak, elikadura sortu, egurra, energia, uraren erabilera...

●HORI ARRISKUAN DAGOELA ADIERAZI NAHI DUZU DOKUMENTALEAN?

Hori guzti hori badugula jarri nahi dut balioan. Baditugu profesionalak lanean, elikagaiekin modu interesgarrian aritzen diren ostalariak, besteendako oheak prestatzen dituztenak, eta bestetik, badaude ibilbideak erakusten dituzten profesionalak, eta abar.

Beraz, garen hori erakutsi nahi dut, horrek erakutsiko baitigu zer den falta zaiguna, edo garen horretaz zer sobratzen zaigun, betiere zer izan nahi dugun pentsatuz.

●ETA NOLA ERAKUTSIKO DUZU HORI DOKUMENTALEAN?

Planteaturiko erronka egiteko eskura ditudan baliabideak erabiliko ditut horretarako. Nik prestatzaile eta nutrizionista bat behar dut erronka hori egiteko, eta galdera da, gizartearen mesedetan erabiltzen ditugu gure elikagaiekin lan egiten duten profesionalak? Haurren jantokietan, etxeetako elikagai ohitura batzuk finkatzeko... Kirolaren profesionalak erabiltzen ditugu gizarte gisa errutina osasuntsu bat izateko?

●BERAZ, ERRONKA HORREN BIDEZ ETORKIZUNERA BEGIRA JARRI NAHI GAITUZU, ZER IZAN NAHI DUGUN PENTSATZERA.

Argi esanda, herririk gabe eta jendearen istoriorik gabe ezingo nuke egin. Dauzkagun potentzialidadeak askatu gabe -eta horiek ez dira nireak, gure gizarteari dagozkionak dira- ezingo nuke egin. Dauzkagun bideak erabiliko ditut, herri honek eraikitakoak. Laburbilduz, gerta ala gerta herri hau gai izan dela errealitate hau aurrera eramateko.

●ULTZAMA ALDETIK IGAROKO ZARA BIDE HORRETAN?

Oraindik ez dut ibilbideazehaztu, baina bi aukera ditut buruan, eta horietako bat Ultzama aldetik pasatzen da. Arruazutik Aralarra joanena naiz, eta mendi gainetatik egongo dut ibilbidea. Izan ere, panorama handia irekitzen da goitik ikusirik, eta nahiz eta herri batzuk ez zeharkatu, menditik ikusten den horretaz hitz egingo dut.

●NOLA SORTU ZEN DOKUMENTALA EGITEAREN IDEIA?

Urte askotako ibilbidearen fruitua da hau, eta ez ibilbide pertsonal batena, kolektiboarena baizik. Sakanan bizi eta lan ekimeneko parte garen sektore guztion eztabaida kolektibo bat eginez, Sakanaren plan estrategikoa ondorioztatu genuen, eta hori du oinarri dokumental honek.



▲ Bideak dokumentalaren karatula

Dokumentala ikusteko

Dokumentala amaitu baino lehen, sare sozialetan (bideakdokumentala.eus webgunea, youtube kanala, facebook...) hainbat “pildora” publikatuko dituzte, bideo laburrak. Jadanik hasi dira.

Behin amaitzean, hiru “tempusetan” hedatuko dute: Lehenik mendiaren inguruko film jaialdietan izanen da ikusgai, eta herriren batean emankizunak izanen dira. Bigarrenik, komunikabide publikozen baitetan ikusteko aukera izanen dugu, eta azkenik sare sozialetan ikusgai izanen dugu. Aritzek dioenez, “jaio den leku berean hilko da, sare sozialetan eta jabetza intelektual kolektiboarekin”.

Aurrera begira: Aritzen esanetan, “dokumentalak ondare inmateriala bilduko du, eta ondare material bat ere utziko du, dokumentala bera, aurrera begira gaia lantzen jarraitzeko aukera ematen duena”.



Olentzero hipsterrak

Pasa den urteko bukaeran **Olentzero** liburutegitik pasatu zen eta zakua liburu beteta ekarri zuen. Zorionez oraindik jendeak liburuak eskatzen dizkio eta, beraz, Olentzero literatura aditu bihurtu da. Milaka aurpegi eta ogibide dauzka Olentzerok eta opariak banatzea bat baino ez da. Ogibide ezegonkorra eta aldi baterakoa. Hala ere, serio egiten du lana eta eskatzen dizkidaten liburu guztiak irakurtzen ditu opari baino lehen eta horregatik literatur katedratikoa izango ahallitzateke (bizarra modan dagoenez, telebista iragarki batzuetan ere **hipsterrarena** egiteko eskaini diote), baina berak nahiago du ikatza egitea.


Kontua da, abenduan Olentzerok oso liburu interesgarriak eta politak (txikientzat zein helduentzat, euskaldunentzat zein erdaldunentzat) ekarri zizkigula. Esate baterako, Durangoko azokan egon zen gure ikazkin maitea eta handik ekarri zigun **Joseba Sarrionandiaren** azkena: **Bizitza ez al da oso arriskutsua?**

Nola deitzen da gaur idazten den egunkari edo eguneroko bat? Gaukaria. Horra Sarrionandiak La Habanako

gaur idatzi dituen testu laburrak (kartzelan idatzitako Ni ez naiz hemen goa liburuan bezalakoak)


«Habanako gauak lasaiak izaten dira, auzokoren batek errime uzten du musika, katuek marruma egiten dute tei-latuetan, tximista lehor batzuk ikusten dira hodeiertzean. Gaukaria berez bezala hasi zen osatzen halabeharrezko edo ustekabeko gaiekin: eguneroko bizimoduko momentuak, telebistako albisteak, lagun arteko enkontruak, ideien tolesdurak, liburu edo pelikularen batek probokatutako epifania txikiak...», idazten du Sarrionandiak berak.

Durangotik ere ekarri digu gure ikazkin hipsterrak beste euskal idazle handi baten azken liburua: **Fakirraren ahotsa**, **Harkaitz Canorena**. **Imanol Larzabal** abeslariren biografia fikzionatua da (Sarrionandia kartzelatik ihes egin zuen Imanolen bafle batean, gogora dezagun) eta eleberrian Imanol Larzabal **Imanol Lurgain** da. Hau da kaleratu duen argitaletxeak, **Susak**, egiten duen liburuaren laburpena: “Zer egin dohain bat daukazunean? Erabili, munduari eskaini, eta, trukean, inoren arreata jasotzera ohitu. Horixe egiten



du Imanol Lurgainek bere ahotsarekin kantagintza konprometitua besarkatu eta frankismoaren kontra borrokan hasten denean. Garai horretan jasoko du bigarren larri izango duen goitizena: Fakirra. Baina ahotsa urteekin legez, aldatuz joango da bere ikuspegia, bai eta bidaideekiko harremana ere. Borroka armatua, klandestinitatea, erbeste paristarra..., mundua iraultzen saiatu zen belaunaldi baten erretratua da lau hamarkadatan luzatzen den nobela hau, sortzailearen hauskortasuna, musikaren ahalmen katartikoa, bizitza bohemioa eta denboraren igaro lasterra bezalako gaiak buruzko hausnarketat betea eta errealtateari maileguan hartutako pasarte eta pertsonaiez josia. Zuzia irenstearen erretzen ez dena da Fakirra; minari eztarrian behera bultzatzen diona. Zer dauka, ordea, esateko? Zein da bere benetako ahotsa?”

Iban Zaldia asko gustatzen zaio literatura katedratikoa izan nahi ez duen ikazkinari eta horregatik Gasteizko donostiar idazlearen bi liburu utzi dizkigu, bata erdaraz eta bestea euskaraz. **Como si todo hubiera pasado** ipuin bilduman Zaldia euskal gatazkarekin







(edo La Cosa-rekin, berak deitzen dion bezala) lotutako hainbat ipuinbiltzen ditu. Ipuin bilduma **Sekula kontatu behar ez nizzizun gauzakere bada**. Kasu honetan liburua laburtzeko ezin dugu fusilatu liburuaren azalak dioena, azala Zalduaren beste ipuin gehiago bat delako, baina hau da **Elkar** web orrian aurkitu duguna (Elkarrek plazaratu ditu ipuinak): “Bere genero kuttunari leial, beste ipuin liburu bat dakarkigu Iban Zalduak. 32 ipuin dira guztira, gehi kontrazalean doana. Istorio aski laburrrak oro har, gaien, estiloen eta tekniken ugaritasuna erakusten digutenak, eta guztietan ere egilearen trebezia: egunerokotasunari azpilak bilatzen dizkioten kontakizunak, fantasiari zirriritu bat irekitzen diotenak, bikoteen arrakaletan arakatzeko dutenak, euskal gatazkari geruza berriak bilatzen dizkiotenak, elkarrizketa bidezkoak, txosten gisakoak, jostalariak, dramatikoak, ironikoak... Fikzioaren festa bat, azken batean”.

Eta umeentzat zer? Ez digu ezer ekarri gure kontraturik gabeko banatzaileak? Jakina! Bi ipuin irakurtzen hasten direnentzat, letra handiz idatziak, eta

oso dibertigarriak, ikusiko duzuen izenburuak aipatzen ditudan bezain pronto: **101 ovejas en el paro, eta Cuando el hombre más fuerte del mundo se pone al teléfono todos le confunden con la tía Encarna**. Tituluak entzunda irakurtzeko gogo pizten da, beraz, ez dut ezer gehiagorik esango ezta kontrazaleko edo argitaletxeren web orrialdeko laburpena lapurtuko ere.

Horiek dira, azken batean, Olentzerok ekarri dizkigun nobedadeetako batzuk, baina liburutegian gehiago dago zuen zain (esate baterako, **Altsasu. El caso Alsasua, edo Atado y bien atado. La transición golpe a golpe komikia**). Ekarri ondoren, mendira itzuli zen ikazkina ikatza egitera eta datorren urtean oparituko dituen liburuak irakurtzen hastera. Egunero deitzen diote uni-bertsitate batzuetatik literatur ikastaro bat emateko edo telebistatik hipster bizardunedako kolonia iragarkiak egiteko, baina berari bost axola.

Patxi Irurzun
Ultzamako liburuazaina





Gaston Nicolas Suarez Rochetti

“Bezperan ostatua ikustera etortzen zirenek esaten zidaten: “Bihar irekiko duzu? Ez zara gai izanen”

Iraizozko ostatua kudeatzeko lehiaketa abenduaren 11n izan zen, eta egun hori bera izan zen Gaston Suarez azken eguna bere orain arteko lanean, Orgi tabernan, Auzan; eta handik 10 egunera bakarrik jarri zuen martxan ostatua. Hasierako lan gogorraren ondoren, bera eta bezeroak pozik daude emaitzarekin. Bertan, herrikoak atenditzen zituen bitartean hartu gaitu elkarrizketa egiteko. Hizkeran ez zaio asko nabaritzen, baina Argentinan jaio da Suarez. 13 urterekin iritsi zen Iraizotza, amonaren herrira. Izan ere, Estefania Arbilla zen bere amona, Miguelena etxekoa. Argentinara emigratu, eta han hil zen. Hamarkada batzuk geroago, arbasoen herrira itzuli zen familia, eta berak dioenez, inolaz ere ez du herria utziko.

- ASPALDI BIZI ZARA IRAIZOTZEN?

Aspaldi, urtebetez bizi izan nintzen Iraizotzen, gero Auritza joan nintzen, eta berriz hona itzuli nintzen. Arraizko ostatua hartu nuen duela 10 bat urte, eta duela 8 urte Iraizotza itzuli nintzen. Ordutik geroztik jarraian bizi izan naiz hemen. Orain hemengo ostatua hartzeko aukera izan dut, eta animatu egin naiz.

- ARGENTINATIK ETORRI ZINEN, EZTA?

Bai, 13 urte nituela iritsi nintzen. Gure amona hemengoa zen, Iraizozkoa, horregatik etorri ginen hona. Bera Argentinan bizi izan zen hil arte, gu denok han jaio ginen, eta nik 13 urte nituela, hona etorri ginen, 2001. urtean. Lehenengo, aita etorri zen, eta, gero, anaiok eta ama.

- ETA NOLA BIZI IZAN ZENUEN ALDAKETA?

Hasieran, arraroa izan zen guretzat. Amona hara joan, eta han geratu zen betirako, kontaktua bazuen familiakoekin, baina asko ez zituen ezagutzen. Bakar batzuek bisitatu zuten Argentinan, baina ez zuen haiekin tratatu handirik.

- HEMEN GERATZEKO ASMOTAN ETORRI ZINETEN?

Beno, hasieran...gaztetxoa nintzen, eta zer aurkituko nuen galdetzen nion neure buruari, eta horren arabera

ikusiko nuen hemen geratu edo itzuli (barreak). Orain ez nintzateke inolaz ere itzuliko! (barreak). Oporretarako gustura noa, 3 edo 4 urtetik behin, aukera dudanean, baina hara bizitzera ez naiz itzuliko.

- ZER ESKAINTZEN DUZU HEMEN, IRAIZOZKO OSTATUAN?

Denetarik. Asteazken zehar eguneko menua eskaintzen dugu, eta, asteburuan, karta. Etxeko gauzak eskaintzen ditugu. Asteburuan, hemen gerok egindako pizzak eta askotariko platerak gaztetxoendako. Eta oso ongi funtzionatzen ari da, lan asko izan baitugu.

- LAN HANDIA IZAN DA HASIERAN?

Bai, bai. Nik abenduaren 11n bukatu nuen Orgin, eta 21ean ireki genuen. Ez nuen ia denborarik izan dena prestatzeko, bete beharrak ziren

paperak betetzeko ... Gainera, sartu eta sukaldean ez zuen ezerk funtzionatzen, bi labe berri ekarri behar izan genituen, platerak garbitzeko makina..., azkenean iritsi ginen, baina larri. Bezperan ostatua ikustera etortzen zirenek esaten zidaten: “Bihar irekiko duzula? Ez zara gai izanen!” (barreak). Aste gogorra izan zen, gero Eguberriak etorri baitziren. Orain hasi naiz deskantsatzen. Baina egun horietan iritsi ezinik ibili nintzen, goizeko 8etan sartu, eta goizeko 3etan atera, eta hurrengo egunean, gauza bera. Erokeria hutsa izan zen, baina emaitzarekin oso pozik nago, jendeak pozik dagoela esaten baitit. Eguneko menuei bultzada ematea gehiago kostako zela pentsatzen nuen, jendeak ohiturak ez dituelako nolana aldatzeko normalean, baina hasieratik oso ongi joan da dena, 10 eta 20 menu bitarte eman ditugu egunero. Inguruan lan egiten dutenak eta inguruko ezagunak etortzen dira, hau da, hemen bizitza egiten dutenak.



Zorionak Zorionak !



Zorionak Mari Jose



Zorionak Marihel eta Beñat



Zorionak Eneko



Zorionak Irati



Zorionak Leire



Zorionak Garazi



Zorionak Kitzari



Zorionak Sagra



Zorionak Ainhoa



Zorionak Belate eta Olatz



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com

2018ko abendua

Gure alderdian, abenduan izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak:

Jaiotzak:

Guk dakigula, abenduan ez zen jaiotzarik izan.

Ezkontzak:

Abenduan ez zen ezkontzarik izan gure alderdian.

Heriotzak:

ANUE Etulain

Faustino Bizkarrondo Imatz, **Lopitxene-ko** nagusia, abenduaren 14an hil zen, 88 urtetan.

Maria Rosario Bizkarrondo Imatz, alarguna, **Lopitxeneko** etxekoandrea, abenduaren 22an zendu zen, 77 urtetan.



▲ *Faustino eta Maria Rosario Bizkarrondo*

ATETZ Aroztegi

Werner Warmbrodt Signer, **Tabernako** nagusia, abenduaren 8an hil zen.



▲ *Werner Warmbrodt Signer*

IMOTZ Urritza

Francisco Iriarte Zabalo, **Mikeleneko** nagusia, abenduaren 19an hil zen.



▲ *Francisco Iriarte*

BASABURUA Udabe

Luis Gordo Lopez, **Udabeko bentako** nagusi zaharra, abenduaren 8an hil zen. Jauntsarats

David Palacios Montané, **Karakoetxe zaharreko (Xaraxola)** nagusia, abenduaren 21ean hil zen.



▲ *Luis Gordo*

ODIETA Ziaurritz

Jesus Ozkoidi Soto, **Labreneko** nagusia, abenduaren 26an hil zen.



▲ *Jesus Ozkoidi*

“
Gure oroimenean
izanen zarete
”

NEUMÁTICOS BETELU

646 47 41 66

Juan Alonso Ortiz

Taller Mugikorra

Neumatikoen aldaketa

Zulatutako neumatikoen konponketa

Zuk nahi duzun tokira joango gara zure
neumatikoak konpontzera
Kostu gehigarririk gabe, kontsultatu prezioak
Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu

Erdiko karrika, 8A · Aizarotz (Basaburua) · Info@neumaticosbetelu.es

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK · PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK



KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com





GAZTE EGUNA ultzama



**MARTXOAK 30
LIZASO**

19:00 Altsasuko kasuaren hitzaldia

21:00 afaria

00:00 kontzertuak

P
R
O
G
R
A
M
A



ZEAMAYS

txartelak salgai: Larraintzarko ostatua, Iraizotzeko ostatua eta Apeztegiberri (Jauntsarats)



ULTZAMAKO GAZTERIA ERASO SEXISTEN AURKA!

